

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA OROKORRA

2023ko PROBA



IRUZKIN

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2023ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2023

IRUZKINA

IRUZKINA

Ituna COP15 goi bileran: Lurraren %30 babestuta, 2030. urterako

Afrikako estatu batzuek salatu dute entzungor egin dietela haien kritikei. Sinatzaileek adostu dute funts berri bat sortzeari buruz hitz egitea.

Igor Susaeta- Gorka Berasategi Otamendi

2022ko abenduak 20

Espezieen desagertze azkartua galgatzeko asmoarekin, COP15 NBE Nazio Batuen Erakundearen natur aniztasunari buruzko goi bileran adostu dute planetaren %30 kontserbatzea. Azken bi asteetan Montrealen (Quebec) egindako biltzarrean parte hartu duten ia 200 herrialdeek akordio hori lortu dute goizaldean. AEBak ez daude, ordea, itunaren sinatzaileen artean.

Adostutakoaren arabera, «bereziki garrantzitsuak» diren ekosistemak babestuko dituzte. Herrialdeek zortzi urteko epea dute helburu horri dagozkion neurriak hartzeko. Hori bai, ez dute zigorrik ezarri konpromisoak betetzen ez dituztenentzat. Azken xedea da 2050erako etenda egotea orain arriskuan dauden espezieen galera, baita egungo desagertze tasa globala hamar aldiz apalagoa izatea ere.

Mundu osoko 3.000 zientzialariren ikerketa batek ohartarazi duenez, izaki bizidunen espezieen %10 desagertuta egongo dira mende amaierarako, neurririk hartu ezean. Lur planeta dinosauroen desagertzetik izan den espezie galerarik handienera da, askok seigarren espezie desagertze masibotzat jo duten prozesuan.

Txinak eta Kanadak bultzatu dute akordioa. Horiek izan dira biltzarrean antolatzaileak. COP15 bilera Txinan egitekoa zen, 2020an, baina COVID-19aren pandemiak atzeratu du.

Afrikako estatuen eta garabidean diren beste batzuen lehentasuna zen biodibertsitatea babesteko funts berri eta bereizi bat sortzea, eta diru ekarpen handiagoa eskatu diete estaturik aberatsenei. Iparraldeko herrialdeek onartu dute funts berri bat eratzea, baina NBERen egungo finantzaketa mekanismoaren barruan, eta funts bereizi bat eratzeko elkarrizketak abiatzera konprometitu dira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2023ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2023

IRUZKINA

IRUZKINA

Adituen arabera, estatuek akordioa betetzen baldin badute aldaketa handiak eragingo ditu nekazaritza industrialean, enpresen hornidura kateetan, eta kontserbazioan komunitate indigenek izango luketen rolean. Izan ere, itunean helburutzat jaso dute 2030erako erdira jaitea nekazaritza intentsiboan erabilitako ongarriak, eta neurri berean murriztea pestizidei eta produktu kimiko arriskutsuei lotutako arriskuak.

Beste konpromiso batzuk

Lurraren %30 babestuko dutela ez ezik, sinatzaileek hitzeman dute degradatutako eremuen %30 berreskuratuko dituztela hamarkada amaierarako; gainera, larrialdi neurriak adostu dituzte desagertzeko arriskuan diren espezieak babesteko, eta ingurumenari kalte egiten dioten jarduera ekonomikoetarako diru laguntzak erreformatuko dituzte —urteko 500 milioi euro inguru dira—. Halaber, enpresei eta finantza erakundeei eskatuko diete eman dezatela beren jarduerak ingurumenean eragiten duen kaltearen berri. Ez dituzte, ordea, legez horretara derrigortuko.

(Egokitua) <https://www.berria.eus/paperekoa/1891/013/001/2022-12-20/ituna-cop15-goi-bileran-lurraren-30-babestuta-2030-urterako.htm>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2023ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2023

IRUZKINA

IRUZKINA

IRUZKINA

Irakurritakoa kontuan harturik, idatz ezazu 25-30 lerroko iruzkin bat. Testuak, gutxienez, 200 hitz izan behar ditu. Aukeratu bi gai hauetako bat eta zure iritzia adierazi. (10 puntu)

A.- Munduko herrialdeak ez dira ados jartzen ingurumena babestearen gaian. Alde batetik, garabidean dauden herrialdeek ituna aurrera eramateko biodibertsitatea babesteko funts bat eskatzen dute eta, horretaz gain, herrialde aberatsek ekarpen handiagoa egitea. Bestetik, badira ituna sinatu ez duten herrialdeak, hauen artean dago AEB. Zure ustez, garabidean dauden herrialdeek arrazoa dute eskakizun hauek egitean? Zergatik? Egon daiteke adostasuna herrialde aberatsen eta garabidean daudenen artean gai honen inguruan?

B.- Zientzialariek izaki bizidunen espezieen %10 desagertzeko arriskuaz ohartarazi digute. Hau ekiditeko, COP15 goi bileran hainbat erabaki hartu dira, adibidez, ekosistema garrantzitsuak babesteko dituzte eta nekazaritza industrian aldaketak egingo dituzte. Nahikoak al dira neurri hauek ingurumena babesteko? Zerbait gehiago egin al daiteke?

Gogoratu honako alderdi hauek hartuko direla kontuan testua zuzentzeko eta ebaluatzeko:

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik gabe).
- Perpausen eta paragrafoen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei).
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna.

Ituna COP15 goi bileran: Lurraren %30 babestuta, 2030. urterako

Afrikako estatu batzuek salatu dute entzungor egin dietela haien kritikei. Sinatzaileek adostu dute funts berri bat sortzeari buruz hitz egitea.

Igor Susaeta- Gorka Berasategi Otamendi

2022ko abenduak 20

Espezieen desagertze azkartua galgatzeko asmoarekin, COP15 NBE Nazio Batuen Erakundearen natur aniztasunari buruzko goi bileran adostu dute planetaren %30 kontserbatzea. Azken bi asteetan Montrealen (Quebec) egindako biltzarrean parte hartu duten ia 200 herrialdeek akordio hori lortu dute goizaldean. AEBak ez daude, ordea, itunaren sinatzaileen artean.

Adostutakoaren arabera, «bereziki garrantzitsuak» diren ekosistemak babestuko dituzte. Herrialdeek zortzi urteko epea dute helburu horri dagozkion neurriak hartzeko. Hori bai, ez dute zigorrik ezarri konpromisoak betetzen ez dituztenentzat. Azken xedea da 2050erako etenda egotea orain arriskuan dauden espezieen galera, baita egungo desagertze tasa globala hamar aldiz apalagoa izatea ere.

Mundu osoko 3.000 zientzialariren ikerketa batek ohartarazi duenez, izaki bizidunen espezieen %10 desagertuta egongo dira mende amaierarako, neurririk hartu ezean. Lur planeta dinosauroen desagertzetik izan den espezie galerarik handienean da, askok seigarren espezie desagertze masibotzat jo duten prozesuan.

Txinak eta Kanadak bultzatu dute akordioa. Horiek izan dira biltzarraren antolatzaileak. COP15 bilera Txinan egitekoa zen, 2020an, baina COVID-19aren pandemiak atzeratu du.

Afrikako estatuen eta garabidean diren beste batzuen lehentasuna zen biodibertsitatea babesteko funts berri eta bereizi bat sortzea, eta diru ekarpen handiagoa eskatu diete estaturik aberatsenei. Iparraldeko herrialdeek onartu dute funts berri bat eratzea, baina NBERen egungo finantzaketa mekanismoaren barruan, eta funts bereizi bat eratzeke elkarriketak abiatzera konprometitu dira.

Adituen arabera, estatuak akordioa betetzen baldin badute aldaketa handiak eragingo ditu nekazaritza industrialean, enpresen hornidura kateetan, eta

kontserbazioan komunitate indigenek izango luketen rolean. Izan ere, itunean helburutzat jaso dute 2030erako erdira jaistea nekazaritza intentsiboan erabilitako ongarriak, eta neurri berean murriztea pestizidei eta produktu kimiko arriskutsuei lotutako arriskuak.

Beste konpromiso batzuk

Lurraren %30 babestuko dutela ez ezik, sinatzaileek hitzeman dute degradatutako eremuen %30 berreskuratuko dituztela hamarkada amaierarako; gainera, larrialdi neurriak adostu dituzte desagertzeko arriskuan diren espezieak babesteko, eta ingurumenari kalte egiten dioten jarduera ekonomikoetarako diru laguntzak erreformatuko dituzte —urteko 500 milioi euro inguru dira—. Halaber, enpresei eta finantza erakundeei eskatuko diete eman dezatela beren jarduerak ingurumeneari eragiten duen kaltearen berri. Ez dituzte, ordea, legez horretara derrigortuko.

(Egokitua) <https://www.berria.eus/paperekoa/1891/013/001/2022-12-20/ituna-cop15-goi-bileran-lurraren-30-babestuta-2030-urterako.htm>

IRUZKINA

Irakurritakoa kontuan harturik, idatz ezazu 25-30 lerroko iruzkin bat. Testuak, gutxienez, 200 hitz izan behar ditu. Aukeratu bi gai hauetako bat eta zure iritzia adierazi. (10 puntu)

A.- Munduko herrialdeak ez dira ados jartzen ingurumena babestearen gain. Alde batetik, garabidean dauden herrialdeek ituna aurrera eramateko biodibertsitatea babesteko funts bat eskatzen dute eta, horretaz gain, herrialde aberatsek ekarpen handiagoa egitea. Bestetik, badira ituna sinatu ez duten herrialdeak, hauen artean dago AEB. Zure ustez, garabidean dauden herrialdeek arrazoa dute eskakizun hauek egitean? Zergatik? Egon daiteke adostasuna herrialde aberatsen eta garabidean daudenen artean gai honen inguruan?

B.- Zientzialariek izaki bizidunen espezieen %10 desagertzeko arriskuaz ohartarazi digute. Hau ekiditeko, COP15 goi bileran hainbat erabaki hartu dira, adibidez, ekosistema garrantzitsuak babesteko dituzte eta nekazaritza industrian aldaketak egingo dituzte. Nahikoak al dira neurri hauek ingurumena babesteko? Zerbait gehiago egin al daiteke?

Gogoratu honako alderdi hauek hartuko direla kontuan testua zuzentzeko eta ebaluatzeko:

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita ote dauden, errepikapenik gabe).
- Perpausen eta paragrafoen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei).
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna.

TESTU IDATZIA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Bi txantiloiredu proposatzen dira. Bata zein bestea erabil daiteke.

Txantiloia 1: Deskripzio analitikoa

	ADIERAZLEAK	Oso Ondo 0,7-1 ptu.	Ondo 0,5-0,6 ptu.	Gaizki 0,2-0,4 ptu.
Egokitasuna (2 puntu)	1. Testuak hizkuntza- erregistro egokia du. Eskatutako hitz kopuru minimoa du			
	2. Testua ondo egokitzen zaio proposatutako helburuari eta eskatutako testu generoari.			
	Egokitasuna	(.....puntu)		
Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)	3. Egitura argia eta zehatza du: sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere adierazi du.			
	4. Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.			
	5. Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	6. Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu. Puntuazio zeinuak ere ondo erabiltzen ditu.			
	Koherentzia eta kohesioa	(.....puntu)		
Lexikoa, sintaxia morfologia eta ortografia (4 puntu)	7. Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			
	8. Arau morfologikoak betetzen ditu: deklinabidea, aditzaren			



	denbora, aspektua eta komunztadura			
	9. Arau sintaktikoak betetzen ditu. Esaldien egitura zuzena eta egokia da.			
	10. Ortografia arauak betetzen ditu			
	Lexikoa, sintaxia, morfologia eta ortografia	(.....puntu)		
	GUZTIRA		

Txantiloia 2: Deskripzio sintetikoa

8-10 puntu	<ul style="list-style-type: none"> -Eskatutakoari lotzen zaio (helburua, gaia, hitz kopurua...) -Erregistro egokia du. -Aukeratutako edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako, ez dago errepikapenik eta gaiak aurrera egiten du - Ideiak eta argudioak ondo garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. - Lokailuak, antolatzailek eta egitura sintaktikoak egokiak eta aberatsak dira - Ez du akats morfologikorik ezta ortografikorik ere
7-8 puntu	<ul style="list-style-type: none"> - Eskatutakoari lotzen zaio. Erregistro egokia erabiltzen du. - ideiak et argudioak garaturik daude eta elkarrekiko lotura dute. - Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (menpekoak, lokailuak...) - Testuak ez du ia akatsik, baten bat baina ez sistematikoak eta ez dute ulermena eragozten
5-6 puntu	<ul style="list-style-type: none"> -Zenbait akats sistematiko ditu edukian edo forman, Hala ere, akats horiek ez dute oztopatzen testua ulertzea. -Ideien arteko koherentzia eta kohesioan dituen gabeziek ez dute oztopatzen ulertzea. - Argudioak edo ideiak ez daude guztiz garatuak, batzuetan jauziak antzeman daitezke



	<ul style="list-style-type: none">-Egitura sinpleak erabiltzen ditu oro har-Ortografian eta puntuazioan akatsak daude baina ez oso larriak.
3-4 puntu	<ul style="list-style-type: none">-Ez zaio eskatutakoari lotzen.-Ez du hitz kopuru minimoa.-Ulegarritasuna oztopatzen duten ideien arteko jauziak, erreferentzia galtzea...- Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak antzematen dira.- Gabezia handi samarrak komunikazioari eta hizkuntzaren ezagutzari dagokienez-Ortografian, arruntak diren hitzetan ere akats larriak.
1-2 puntu	<ul style="list-style-type: none">-Ez du eskatutakoa bete.-Hitz kopuru minimoa ere ez du bete- Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu- Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan egiten dituen akatsak ulermena eragozten dute.- Nabarmenak dira komunikazio eta hizkuntza gabeziak- Oinarrizko akats gramatikal larriak egiten ditu: ergatiboa, komunztadura, perpaus osagarriak

EZAGUTZA ADIERAZLEAK

- 2.7. Eskatutako testu-motaren berezko eskemen arabera ideiak antolatu, planifikatu eta informazioa koherentziaz antolatzea.
- 1.5. Miltzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, ondo lotuak eta zuzenak sortzen ditu.
- 2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilia.
- 4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.